

1. Sarrera

VIII Biltzar Nagusi honetan eztabaidarako aurkezten dugun antolakuntza ponentziaren aurkezpenarekin hasi baino lehen honen eztabaida burutzeko metodologiari tarte bat eskaini nahi diogu.

Aurreko Biltzar Nagusietan antolakuntza ponentzia eztabaidatzean gure antolakuntzaren eredu osoa jasotzen genuen. Hau da, eredu osoaren balorazioa eta proposamena egiten genuen, beste eran esanda eredu osoa eztabaidagai jartzen genuen.

VIII Biltzar Nagusi honetan egiten dizuegun eztabaidarako proposamen honetan bi euskarri izango ditugu, Antolakuntza ponentzia bera eta sindikatuaren Estatutuak.

Proposatzen dugun metodologian eztabaidagai jarriko duguna antolakuntza ponentzian egongo da, bertan gure ereduaren inguruan egiten dugun balorazioa, ereduaren filosofia eta egungo ereduari proposatzen dizkizuegun egokipenak agertuko dira.

Beste aldetik Estatutuak egongo dira.

Estatutuek orain arte sindikatuaren ezaugarriak eta helburuak jaso dituzte. Aurrerantzean horretaz gain gure Estatutueta ezaugarri eta helburu horiek aurrera eramateko ditugun tresna organizatiboak ere jasoko ditu.

Gure antolakuntza eredu osoa Estatutoetan jasotzean, nolabait gure organigrama normatibizatzen dugu eta honekin batera eztabaida bera zentratu nahi dugu. Eztabaida hobetu, zuzendu edo egokitu nahi ditugun arloetara mugatuz.

Burutuko dugun eztabaidaren ondorio organizatiboak Estatutueta jasoko dira, auzitan edo zalantzan jartzen ez diren egiturekin batera.

Hemendik aurrera ondorengo Biltzar Nagusietan antolakuntza ponentzia eztabaidatzean metodologia bera izango dugu. Soilik hobetu, zuzendu edo aldatu nahi ditugun atalak aztertzea, eta erabakitzen dugunarekin Estatutueta egin beharreko egokipenak egitea.

Honek ez du esan nahi ponentzian agertzen ez denaz ezin dela eztabaidatu. Edozein afiliatuak ekarpenen bitartez gure ereduaren inguruko zalantzak, zuzenketak edo aldaketak proposa ditzake.

Balorazioarekin hasi baino lehenago azken aipamen bat egin nahi dizuegu.

Ondoren aztertuko dugun testuan balorazio atala lantzeko orduan arau berdina erabili dugu. Beraz balorazioa egiteko garaian erabaki dugu egitura guztien goitik beherako errepaso egin beharrean sakondu nahi ditugun arloetan zentratzea hain zuzen ere.

Aldi berean hemen jasotak egon daitezken balorazio batzuk, Gestio informean jasotak egonik hemen ez dute tokirik burutu behar dugun eztabaida prozesu honetan bikoizketak ekiditzearren.

Azkenik, ondorengo testuaren atal batzuk sindikatuan egitura desberdinekin egindako "Eraberritze Urratsa" hausnarketa prozesuaren ondorioa dira. Prozesu honek, fase desberdinak izan ditu, baina bere une berezia izan du 2011ko abenduaren 15an Donostian egindako Nazio Biltzarrean, bertan eztabaida gai izan dira ondoren agertzen diren zenbait gogoeta eta planteamendu.

2. Lau urteko esperientziaren errepasoa.

2.1.-Berrikuntzen balorazioa.

Belaunaldi berri bat.

2008ko maiatzean gure VII Biltzar Nagusia egin genuenean gutxi batzuk imajina genezakeen urte bereko udazkenetik gaur arte pairatzen ari garen egoera ekonomiko-finantzieroa etor zitekeenik eta krisi honek langileentzako eta jendarte ororentzako erakarri dituen inposaketak eta aldaketak.

Lau urte oso gogorak izan dira eta izaten ari dira. Euskal Herrian eta Europan inoiz ezagutu ez den krisirik sakonetarikoa pairatzen ari gara eta horren ondorioz arlo publikotik ezarri eta ezartzen ari diren murrizketek eta Madrilgo zein Pariseko Gobernuak inposatu dizkiguten erreforma desberdinek markatu dute lau urteko agenda sozial, politiko eta ekonomiko osoa.

VII Biltzarrean antolakuntza arloan genituen erronka desberdinen artean zalantzarik gabe nagusietariko bat belaunaldiaren aldaketa zen. Militante belaunaldi berri oso bati egokitu behar zitzaion sindikatuaren ardura eta zuzendaritza hartzea.

Arduren aldaketa honek koadro militante askorentzako zuzendaritza organo batekin bere lehenengo harremana izango zen. Aldaketa guztiek bere egokitze fasea, bere denbora behar badute honetan hori ez da egon, ez dugu trantsizio lasai bat egiteko aukerarik.

Koiuntura ekonomiko honetan sindikatuaren belaunaldi aldaketa egitea ez da lan xamurra izan. Kanpoko aldagaiek asko markatu zuten aldaketaren hasiera.

Orain denboran atzera begiratzen dugunean eta lau urte hauetako ibilbideari erreparatzen diogunean jabetzen gara egindakoaz. Bidea ez da erreza izan, eta aldaketekin batera normalak diren uneko urduritasunak eta zalantzak berehala atzean gelditu ziren.

Beste krisialdirik ezagutu ez zuen belaunaldi batek 2008ko urritik aurrera LAB sindikatuak izan duen protagonismoa eta interbentzioa krisiaren aurkako dinamiketako erreferentea bihurtu da.

Ardi dago hori ez dela soilik belaunaldi honen meritua, egoera honetara ailegatzeko ardura handia dute aurreko belaunaldiek guri erakutsiko bidea, beraiek izan bait dira urtetan elikatu eta ureztatu dutenak gure barruan dagoen hazia.

Gogoeta hau amaitzeko udararen atarian egonik kurtso akademikoetan gauzak ebaluatzeko garaia den honetan azterketaren konparazioa erabiliko dugu eta esan dezakegu irakasleak azterketa zaila eta gogorra jarri digula baina notarekin gainditu dugula.

Federazioak

Beste aldetik VII Biltzar Nagusian gure eredu organizatiboari egin genion berrikuntzarik nagusia Federazioen sorrera izan zen.

Apustu honek helburua argia eta ia bakarra zuen, Federazioen bitartez sektoreak eta azpisektoreak elikatzea, gure interbentzio sindikalean sakondu ahal izateko.

Horretarako Federazio bakoitzean hiruzpalau pertsonen osatutako lan talde bat osatu nahi genuen. Talde honen funtzioa eta ardura nagusia izanik Federazio horretan dauden sektore zein azpisektoreetako azterketa, ebaluazioa egitea ondoren ekintza sindikalaren interbentzioa diseinatu, inplementatu eta jarraipena egin ahal izateko.

Lau urte hauetan arlo sindikalean gauza asko pasa dira (krisiak, EREak, mobilizazioak, erreformak, grebak, hauteskunde sindikalak, e.a.), egoera guzti hauetan sindikatuak izandako jarrera eta gurekin batera langileek sindikatuaren planteamenduaren aurrean emandako erantzuna asko laguntzen dute balorazioa egin ahal izateko.

Aipatu ditugun aldagai guzti horiek kontutan izanik esan dezakegu Federazioen bitartez sindikatuaren interbentzioa ekintza sindikalean eta negoziazio kolektiboan irabazi dugula.

Ibilbide honen hasieran normalak ziren Federazio eta sektoreen arteko zalantzak, bakoitzaren papera, garatu beharreko funtzioak eta izan beharreko protagonismoak.

Zalantza horiek berehala uxatu ziren eta Federazioek denbora gutxian, bizi eta inposatu diguten krisi ekonomiko honetan, gure egunerokotasunean zentralitatea eta erreferentzialtasun handia eskuratu dute.

Federazioek hartu duten protagonismoak zenbait unetan ez digu Federazio eta Sektoreen arteko oreka mantentzen lagundu. Une zehatz batzuetan Federazioak pisua irabazten joan diren neurrian sektoreak pisu eta erreferentzialtasun hori proportzio berean galtzen joan dira.

Hau izango da datozen hilabete eta urteetarako gure helburutariko bat. Marko bakoitzari bere espazio propioa eta protagonismoa topatzea beraien arteko osagarritasunak indartuz eta egon daitezkeen solapeak gaindituz.

Sektoreak

Federazioen sorreraren ondorioz Sektoretako arduradunen kokapena Nazio Komite Konfederaletik Federazioetako Komitera pasatzea beste berrikuntzetariko bat izan zen.

Erabaki honekin zalantza batzuk agertu ziren sektoreen paperen inguruan. Egindako lanketa dela eta batzuei iruditzen zitzaien sektorializazioaren garapenean atzera pausu bat ematen genuela.

Gure helburua bestelakoa zen. Egindakoak bi norabideko erronka bat zuen. Alde batetik zuzendaritza konfederalera gerturatzea. Hartutako bideak ekintza sindikalari garrantzi gehiago ematea zuen helburu.

Eta bestetik, sektoreei tresna bat ematea beraien interbentzioa hobeto garatu ahal izateko, Federazioen bitartez sindikatuaren planteamendu konfederalera gehiago integratuz, lotura zuzenago bat izanik organo konfederalekin.

Erabaki honek bestelako erabaki osagarriak zituen. Besteak beste lurraldeko egituraren papera eta protagonismoa zenbait eztabaida konfederalen garapenean sindikatuaren barne bizitza antolatzeke asmoz. Honek helburu argi bat zuen aurreko fasean sindikatuan detektatu genuen eztabaiden bikoizketa ekiditzea hain zuzen ere.

Gaur esan dezakegu bi apustu horiek ondo atera direla, alde batetik sektoreen dinamikak indartu ditugu, gure interbentzio ekintza sindikalean eta negoziazio kolektiboan irabazi dugu.

Egindako bidearen ondorioz sektoreak sektoreago bilakatu ditugu.

Beste aldetik, detektatu eta gainditu nahi genuen lurraldeko egitura eta egitura sektorialen artean hainbatetan ematen ziren eztabaiden bikoizketa gainditu dugu ere bai.

Dena den oraindik gauzak hobetzeko gelditzen zaizkigu.

Arduradun sektorialen eta sektoretako nazio komiteen papera indartu behar dugu. Bi ardura hauek gure egunerokotasunean paper garrantzitsuago bat jokatu behar dute

Eskualdetako sektoreen garapenari azken bultzada eman behar diogu eskualdeko idazkaritzaren funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko.

Sindikatuak garapen sektorial honetan zenbait aldagai kontutan hartu behar ditu. Lurraldeko egituraketari dagokionez esaten dugun moduan eskualdeen arteko desberdintasunak kontutan hartu behar direla, garapen sektorial honetan Federazioei eta sektoreei gogoeta bera aplikatu behar zaie.

Exekutiboa

↳ SEKTORRE FEMENIZAZIOA } → oraindik berrantolatu behar da
↳ BILKORRO

VII Biltzar Nagusian egindako aldaketen bidez (Federazioak eta hauen komiteak, Antolakuntzari zegozkion funtzioak ardura desberdinen artean kokatzea, e.a.), lagundu digute hobetzen, lau urte hauetan zuzendaritza indartu dugu eta ponentzia honetan egiten ditugun zenbait proposamen norabide horretan eragin nahi dute.

VII Biltzar Nagusian planteatu genuen exekutiboaren konposizioa sindikatuan ditugun erronken edo interbentzioen arabera hiru zatitan banatu genuen, Ekintza Sindikala eta Negoziazio Kolektiboa (Federazioen bitartez), Politika Ekonomikoak eta Sozialak (Politika Soziala-Idazkari Ekonomikoa eta Enplegua) eta Antolakuntza (Antolaketa, Hedapena eta Ordea), era eskematiko batean defini daiteke.

Hiru lerro hauek dute jarraipena Ekintza Sindikaleko Batzordean, Batzorde Sozioekonomikoan eta Antolakuntza Batzordean.

Azken zortzi urteetan gure ekintza sindikala indartzeko asmoz urrats desberdinak eman ditugu lehena izan zen Sektorearteko Idazkaritzak sortuz eta bigarrena Federazioen Idazkariekin batera Federazioen Komiteei bidea emanez.

Ardura hauen garapenarekin batera gure ereduan historikoki zeuden bi ardura desagertu egin dira, Ekintza Sindikaleko arduraduna eta Negoziazio Kolektiboarena hain zuzen.

Azken lau urte hauetan interbentzio sektoriala indartu dugu, baina indartze hori izan da ikuspegi orokorraren kaltetan. Sektoretan eta mikroan gure ekintza sindikalaren interbentzioan hobetu badugu sindikatuaren diskurtso eta erreferentzi konfederalen galera izan dugu, sindikatuaren gogoeta konfederalak ahulduz joan dira.

Ahultze horrek oso azalpen erreza du. Federazioak indartzean ez dugu aurreikusi ardura bat sindikatuko ekintza sindikaleko eta negoziazio kolektiboko ikuspegi konfederala lantzeko. Gabezi hau urte hauetan exekutiboan ardura desberdinen artean era batean edo bestean kudeatu da.

Bizi dugun krisiak azken hilabetetan Politika Ekonomiko eta Sozialen birmoldaketa batera eraman gaitu.

Krisiaren ondorioz botere ekonomikotik planteatzen diren murrizketa asko era zuzenean eragiten diote interbentzio esparru honi. Denok jabetzen gara erasoaren tamaina ez dela amaitzen orain arte egindakoarekin.

Jada etorkizun laburrean bestelako murrizketak planteatzen hasiak dira eta honek gure interbentzio soziala indartzera eraman gaitu.

Gogoeta hau amaitzeko esan dezakegu ziklo baterako gure zuzendaritza eredu finkatu dugula eta orain beste esparruen hobekuntzan eta

konsolidazioan sakondu nahi dugu, koordinazio eta interbentzio gunen unea ailegatu zaigu.

Lan Osasuna

Duela lau urte, Federazioekin gure interbentzio sindikalari integritasun bat eman nahi genion bezala, Lan Osasunaren Idazkaritzarekin egin genuen gogoeta eta apustua bide beretik zihoan.

Honek idazkaritzatik betetzen dituen funtzioak bereiztera eramaten gaitu. Batetik ekintza sindikalaren ondorioz behar ditugun bitarteko teknikoak, aholkularitza. Bestetik, interbentzioari zuzendatutakoak.

Gogoeta honen haritik dator duela lau urte abian jarri genuen planteamendua Lan Osasunako kide batzuen kokapena ekintza sindikala diseinatzen den gunetan kokatuz sektoretako Nazio Komitetan hain zuzen.

Egindakoaz balorazio positiboa egiten dugu eta bide horretan sakontzera joan nahi dugu. Horretarako Idazkaritza, Federazio eta Sektoreen arteko lotura organizatiboa finkatu beharrean gaude.

Zeharlerroak

Sindikatuan lan munduaren normalizazio dinamiketan aitzindaria eta erreferente bat izan da eta da.

Lan munduan zein egungo jendartean emakumeen berdintasuna aldarrikatetik dinamikak sustatzera eta bultzatzera pasa ginen.

Gure hizkuntza nazionalak lan zentroetan eta lan munduan pairatzen duen diskriminazioa salatu eta bestelako protagonismoa izan dezan dinamikak bultzatzera pasa ginen.

Urtetan bi lerro hauetan lortutako tentsionamenduak eta dinamikak eraman gintuen pentsatzera Emakumeen eta Euskararen Idazkaritzekin nahiko izango zela egindako lanari segida emateko eta hori dela eta Zehar-lerroko Idazkaritza desagertzea erabaki genuen.

Lau urte hauetako ibilbidean izandako barruko zein kanpoko faktoreen ondorioz argi ikusi dugu ez zela erabakirik hoberena izan eta lau urte hauetan inplementatu beharreko dinamiketan intentsitatea nabarmen galdu dugu.

Gogoeta honek ezinbestez gure erabakiak berraztertzeraz eramaten gaitu. Bide horretan interbentzio lerro hau indartzeko asmoz Zeharlerroko arduraren berreskuratuko dugu.

Prestakuntza

Aurreko Biltzarrean asko hitz egin genuen prestakuntzaz, formakuntzaren beharraz. Urte hauetan jauzi batzuk eman baditugu ere oraindik sindikatuan ez dugu lortu prestakuntza plan integral bat diseinatzea.

Prestakuntza plan horretan ezinbestez jaso, ~~homogeneizatu eta ordenatu behar du sindikatuan arlo desberdinetatik prestakuntzarako dauden eskaerak.~~

Sektore, eskualde zein idazkarizetatik etengabe prestakuntza dinamikak planteatzen ari dira. Horiekin batera sindikaturen behar konfederalak ditugu planteatzen ditugun ildoen sakontze eta zabalpena egin ahal izateko.

Eta gogoeta honetan ezin dugu ahaztu militante orok bere ardura era zuzenago batean garatu ahal izateko beharrezkoak diren etengabeko prestakuntza.

Baina prestakuntza arloa ezin da mugatu dauden eskaerei irteera edo erantzun bat ematera.

Prestakuntzak sindikatuaren beharrak aurreikusi behar ditu, hau da eskaerari erantzuteaz gain eskaintza bat diseinatu behar du.

Eskaintza hori egin ahal izateko prestakuntza guk eragin nahi dugun esparruen segimendua eta ezagutza izateaz gain, sindikatuaren lehentasunak oso ondo barneratuak izan behar ditu.

Pentsionistak

VII Biltzar Nagusitik finkatu genuen beste erronka sindikatuaren interbentzio integral osatuago bat izan zedin.

Hasiera batean helburu xumea zen, gune organizatiboa eskeintzea adina dela eta lan mundutik kanpo gelditzen zen militantziari, bertatik jendartearen zati inportante baten kezka eta arazoak konpartitzeko eta eragiteko.

Arlo honekin sindikatuak bere interbentzio integrala garatu nahi du adinaren poderioz ziklo laboraletik kanpo gelditu den jendartearen zati garrantzitsu batengana.

Lau urte hauetan egindakoaren balorazioa oso positiboa da, lau urte hauetan ez dugu soilik garapen organizatibo bat eman, eskaini, lan mundutik kanpo gelditzen den langileentzako.

Gai izan gara, erreferentziak sortzeko, diskurtso propio garatu eta dinamikak antolatuz.

Eskualdeak

VII Biltzar Nagusian asko azpimarratu genuen Eskualdeko Idazkaritzaren eta Eskualdetako Sektoretako Arduradunen papera. Egindako gogoeta berrezten dugu, baina argi dago lortu nahi genuena eta orain arte garatu duguna oraindik urrun dagoela diseinu horretatik.

Honek ez gaitu eramaten ardura hauen papera birdefinitzera. Aurreko paragrafoan esan dugun moduan duela lau urteko gogoetan berresten ari gara.

Eskualdea ez da guk nahi dugun lan taldea. Eskualdea gure diseinuan ematen diogun papera bete ahal izateko osaketan eta funtzionamenduan hobetu behar dugu.

Osaketari dagokionez, sektoreen atalean esaten genuen moduan, eskualdetako idazkaritzen osaketa oraindik zenbait eskualdetan dagoen errealitateari ez dio erantzuten.

Horretaz, gain eskualdeko idazkariaren papera batzuetan lotuago dago suhiltzailearen papera egiteari, komodin bat izanik, benetako eskualdeko arduradun politikoaren izaerari baino.

Eskualdeak sindikatuaren konpaktazio eta interbentzioren gauzapean organo garrantzitsua izanik, ezinbestez ezagutu behar ditu, sindikatuaren era konfederallean ematen diren dinamikak (independientementen dinamikak hauek eragin izan edo ez bere eremuan), eta bereziki bere eskualdean reflejoa izango dutenak.

- Bileren dinamizazioan ere asko sakondu eta hobetu behar dugu.

- Lau urte hauetan ez dugu lortu eskualdetako sektoretako lan taldeak nahi genuen moduan garatzea.

- Sail sindikaletako zein Herri Biltzarretako dinamizazioan ez dugu aurrerapausorik eman.

Denok ikusten ari gara une honetan eskualdetan ematen ari den ataskoa. Atasko honek ez digu laguntzen, ez digu uzten garatzen teorikoki denok ikusten eta inplementatu nahi dugun praxia.

Urtetan gure gogoetan azpimarratu dugu egunerokotasunak gure dinamika jaten gaituela eta egoera hau, bizi dugun krisi ekonomikoarekin, areagotu egin da.

Sindikatuak seriooki baloratu behar du eskualdetan ematen ari den egoera. Ezin dugu beste biltzar nagusien arteko ziklo oso bat galdu eta hurrengo Biltzar Nagusian egoera honekin berriro topo egin.

Koiuntura ekonomikoak ez da gure zain egongo, neurriak hartzen ez baditugu

trena galtzeko arriskua dugu. Gai honetan anbiziosoak izan behar gara, irabaztera joateko ordua ailegatu da.

Jakitun gara ez dela neurri bakarra izango egoera honetatik aterako gaituena, neurri organizatibo desberdinekin batera norberaren jarrera auzitan jarri beharko da egoera hau gainditu nahi badugu.

Gure eskualdetako sektoretako arduradunak beraien sektorearen garapenari eta inplementazioari begira jarri nahi baditugu gai hau hurrengo hilabetetan era sakon batean landu beharko dugu.

2.2.-Gure ordezkaritza zabalduz.

Biltzar Nagusien arteko aldi horretan bai Ipar Euskal Herrian zein Hego Euskal Herrian sindikatuak aurre egin die ordezkaritza finkatzeko prozesu desberdinei,.

Ipar Euskal Herrian 2009ko abenduan Proud'hometan lortutako emaitzek jauzi nabarmen bat suposatu zuten sindikatuaren bilakaera eta Ipar Euskal Herriko mapa sindikalean erabateko aldaketa ekarri zuen.

Urteetan egindako lanak aukera eman zigun lehenengo aldiz Ipar Euskal Herriko sektore eta barruti elektoral guztietan aurkeztu ahal izateko.

Barruti zein sektore guztietan lortutako emaitzek sindikatuaren proiektua Ipar Euskal Herriko langileen artean proiektu kontsolidatu bat dela erakusten digu.

Lortutako emaitzek sindikatua Ipar Euskal Herrian beste ataka batean jartzen gaitu. Hamar urte pasa dira sindikatua ipar euskal herrira zabaldu zenetik eta jada sindikatuaren proiektua Ipar Euskal Herriko egoera sozioekonomikoan eragiteko anbiziosoago izateko unea ailegatu da.

Sindikatuak bestelako protagonismoa landu behar du konplexurik gabe, hamaika urtetako ibilbideak eta milaka langileen bozkek legitimitate nahikorik ematen digute pausu hori emateko. Beraz erronka berri baten atarian kokatzen gara.

Beste aldetik, Hegoaldean duela urtebete itxi dugun hauteskudetako aldi trinkoan lortutako emaitzek gogoeta berezitu bat behar dute.

Eredu finantzieroak sortu duen eta inposatu diguten krisialdi sakon baten murgildurik, sindikatua 2008ko udazkenetik bakarrik zein gehiengo sindikalean, honen aurkako konfrontaziozko lerro oso batean murgildurik egon da.

Urte hauetan sindikatuak kapitalak eta administrazio desberdinen artean eraikitako proiektuari erabateko salaketa iraunkorra egiteaz gain, bestelako

eredu eta kudeaketaren aldeko lerroa eraikitzen eraman gaitu.

Ildo honen isla nabarmenena EREn aurkako dinamiketan, greben lanketetan edo negoziazio kolektiboan izandako jarreretan izan dute bere bisualizazioa.

2010ko hauteskunde sindikaletako aldi trinkoa abordatzerakoan sindikatuak galdera ikur handi bat zuen hauteskunde prozesu honetan bisualizatu egingo bait zen sindikatuak bultzatutako lerroarekin langileek ulertu eta bat egiten zuten edo ez.

Lortu ditugun emaitzak testuinguru horretan aztertu behar dira. Dena aurka genuenean sindikatuak hauteskunde sindikal hauetan lortu dituen emaitzak oso onak izan dira eta izaten ari dira.

Aldi berean afiliazioan izaten ari garen bilakaera positiboa hauteskunde sindikalen inguruan egiten dugun balorazioa indartzera dator.

Dena dela bi esparru hauetan lan metodoetan oraindik zer hobetu badugu. Ezin bestez gure planifikazioan eta segimenduan hobetu beharrean gaude.

Egunerokotasunari oso lotuta dagoen hedapena egiten dugu, planifikazioan jauziak eman behar ditugu, helburu orokorrak izateaz gain helburu zehatzetara (sektorialak, hitzarmenen arabekoak, enpresetakoak, e.a.), pasatuz. Oraindik orain eta hurrengo urteetan dinamika hori aldatzea izan behar dugu helburu.

Hauteskunde sindikalak eta afiliazioa lan ildo iraunkorrak izatea lortu behar dugu, ekintza sindikalerako ditugun beharrei lotuta hain zuzen. Ekintza sindikala eta negoziaketa kolektiborako lehentasunak ezartzen ditugun bezala, esparru hauetan gure ordezkartza eta afiliazioa igotzeko plangintzak burutu behar dira ere.

Planifikazio hauek gure interbentzioari erabat lotuak izan behar dira. Honek esan nahi du sektoreek bestelako protagonismoa izan behar dutela hedapenaren planifikazioak diseinatzeko eta onartzeko garaian.

Sektoreei, neurri handi batean, sindikatuaren erronkak definitzea dagokie.

3.Hurrengo zikloaren apustua.

3.1.-Erakunde oso bat interbentzioari begira

Ondoren planteatuko ditugun egokipenek erakundearen funtzionamenduan hobetzea dute helburu.

Egokipen hauekin Euskal Herrian zabaltzen ari den aro berri honetan sindikatuaren interbentzioa indartu nahi dugu.

Bide horretan garrantzia handia ematen diogu datozen hilabete eta urteetan izango ditugun erronkak denon erronkak izateari.

Aurreko Biltzar Nagusian esaten genuen borroka sektorial bakoitza estrategia orokor baten barruan kokatua dagoela eta horren ondorioz borroka horiek sindikatuaren osotasuna elikatzen dutela.

Gogoeta honi segida emanez gure funtzionamenduari beste jauzi bat eman nahi diogu.

Planteatzen dugun funtzionamenduaren bidez garrantzia eman nahi diogu behetik gorako komunikazioari, gogoetari.

Denbora eskaini nahi diogu eskualdetan eta sektoretan interbentzioa garatzeko dauzkaten beharrei eta lehentasunei.

Hauen bitartez interbentzio zuzenean dauden egituren hausnarketak eta beharrak sektore eta organo konfederalen gogoetan uztartu nahi ditugu.

Dinamika honek gure interbentzio konfederala integralagoa eta zuzenagoa izatea du helburu.

Horretarako denon beharra dugu baina bereziki eskualdetako egiturek garrantzia hartzen dute, sail sindikalak, herri biltzarrak, eskualdeko idazkaritzak, ezinbestekoak zaizkigu.

Inplementatu nahi dugun behetik gorako dinamika horretan eskualdeari dagokio elikatzea bai egitura sektorialak (sektoretako Nazio Komitea), bai egitura konfederalak (Nazio Komite Konfederala)

Erronka honetan bi ardurek oso paper garrantzitsua jokatu behar dute, eskualdeko sektoreko arduradunak eta eskualdeko idazkariak hain zuzen.

Aurreko gogoetari gehitu behar diogu beste helburu bat sindikatuaren dinamika guztiak ordenatzea eta honekin batera lehen esaten genuen moduan dinamika hauek ez izatea bakarren batzuen (sektoreak, eskualdeak, idazkaritzak, e.a.), helburuak, denon helburuak baizik.

Ordenatze honen bitartez sindikatuak burutzen dituen ekimenen dispersioa eta/edo inflazioa ordenatu eta mailakatu nahi du.

3.2.-Zuzendaritza organoen papera.

Edozein erakundean zuzendaritza organoen beharra begi bistakoa da. Baina zuzendaritzako organoak bezain beharrezkoak dira koordinazio eta interbentziorako organoak.

Gurea bezalako erakunde batek bere inguruan eragin nahi badu ezinbestez hiru organo edo egitura horiek beharrezkoak ditu, bere funtzionamendu osoa bermatu ahal izateko.

Eredu horretan zuzendaritza egiteko era eta modelo asko egon daitezke. Modelo eta era horien arabera ezaugarritzen da erakunde bat.

Modelo eta zuzendaritza egiteko erak izaten dira neurri handi batean (beste aldagai batzuekin batera), erakunde bati izaera bat edo bestea ematen diotena.

Zuzendaritza baten funtzio nagusietarikoa da, lidergoa markatzeaz gain, erakunde baten jarduerari koherentzia eta integritasuna ematea.

Eztabaida horri gurean ekiteko orduan betidanik oso argi izan dugu gure ereduan zuzendaritza organo konfederalek organigraman dauden gainontzeko organoekin alderatuta sekulako garrantzia eta pisua dutela.

Hori esan da, gure zuzendaritza ereduan funtzionamendu egoki bat lortu ahal izateko gure egituraketan dauden beste organo batzuen ekarpenak ezinbestekoak dira. Ekarpen horiek gabe ez genuke lortuko ikuspegi orokor bat gure interbentzioari ekiteko orduan.

Honekin zer esan nahi dugu, denok, bakoitza bere egituratik, gure ekarpenen bidez zuzendaritza konfederala egin ahal izateko ezinbestekoak gara.

Baina aldi berean honek ez du esan nahi denok zuzendaritza garenik,.

Gogoeta hau askotan nahasten da organoen autonomia zuzendaritza egiteko gaitasunarekin lotzen baldin bada. Eta zer esanik ez konfiantzaren argudioetara jotzen dugunean.

Autonomiaren gogoetari lotuta berriro ere gogora ekarri nahi dugu duela lau urteko gogoeta bat "Borroka sektorial bakoitza estrategia orokor baten barruan dago kokatua, beraz osotasuna elikatzen du. Hemen ez gaude lehia batean non nork berea ahalik eta txukunen gauzatu behar duen, ondokoarena kontutan hartu gabe".

Horregatik ezin dira hamaika erabaki gune egon, baina aldi berean zuzendaritza eredu horretan erabakiak hartu behar duen organo konfederalak, ildoaren definizioan eta inplementazioan egon behar direnen parte hartzea era batean zein bestean bermatu beharko du.

Gero bai, ildoak finkaturik egitura bakoitzak ildo horien gauzapenerako bere erabaki propioak hartu beharko ditu. Baina jakitun izan behar gara erabaki

horiek ildoen garapenari begira hartzen direla, ez direla ildoa auzitan jartzeko.

Hori dela eta organo bakoitzak sindikatuaren osotasunean jokatzeko duen papera eta zertarako dagoen jakitea oso inportantea da.

Ordenatze honen helburua ez da hierarkizazio bat ezartzea, egituren funtzionamenduan eraginkortasuna bilatzea baizik.

Hemen arazoa ez da zeinek hartzen dituen erabakiak baizik eta nola erabaki horiek era egokian hartzeko denok gure funtzio betetzen dugun

Gogoeta honek gure organigramari ekarria horrela geldituko litzateke.

Zuzendaritza, Biltzar Nagusia, Nazio Biltzarra, Nazio Komitea eta Exekutiboa. Zuzendaritzaren bitartekoak Federazioen Komiteak eta Batzordeak (Ekintza Sindikala, Sozioekonomikoa eta Antolakuntza).

Koordinazioa, Nazio Komite sektorialak, Eskualdeak.

Interbentzioa, Sail sindikalak eta herri biltzarrak.

3.3.-Federazioen apustuan sakontzen sektoreak indartuz.

Hurrengo urteetan Federazioek eta hauekin batera aritzen diren Sektoreen papera eta protagonismo gure erakundearen jardura finkatzeko orduan handiago izango da.

Azken Biltzar Nagusietan egindakoan sakondu nahi dugu eta horretarako hartuko ditugun erabakiak modelo bera indartzeari begira zuzenduak daude.

Planteatzen dugun eremuan federazioek bi funtzio nagusi izango ditu.

Batetik, sindikatuak ekintza sindikalean eta negoziazio kolektiboari buruz egin beharreko gogoeta eta ildoen definizioan lagundu. Horretarako Federazioko arduradunak Ekintza Sindikaleko eta Negoziazio Kolektiboko Arduradunarekin batera arituko dira.

Bestetik, interbentzio ildo konfederalak federazioan dauden sektoreen errealitatera egokitzea. Ariketa hau Federazioko Komitetan emango da.

Bigarren honetan Federazioek baita ere paper bikoitza dute, alde batetik sektoreen jardura definitzeko analisiak eta proposamenak egin eta beste aldetik sektoreetatik egiten diren plangintzen gauzapenean lagundu.

Horretarako, berezitu behar ditugu Federazioko Idazkariaren papera eta Federazioko Interbentziorako Arduradunarena. Bigarren arduraren honen funtzioak gehiago lotuko ditugu plangintzen gauzapenari begira.

Ponentiaren hasierako gogoetan gainditu beharreko egoeren artean arreta berezia eman nahi diogu Federazioetako Komiteetan dauden Sektoretako Arduradun Nazionalen papera eta protagonismoari.

Berreskuratu nahi dugu lehen arduradun hauek sektoreari begira zuten protagonismoa. Ardura hauek organo konfederalatik planteatzen diren ildoen gauzapenean zuten protagonismo berreskuratu nahi dugu.

Horretarako, indartu nahi dugu ardura hauen funtzioak sindikatuaren barrura zein kanpora begira.

Gure organigraman sektoreek bi funtzio nagusi dituzte; alde batetik eskualdetan dauden interbentziozko esparruen beharrak eta gogoetak detektatu, jaso, bai ekintza sindikalean zein negoziazio kolektiboan, eta horiek abordatzeko planteamenduak proposatu beharko dituzte.

Eta hauekin batera Federazioen bitartez planteatuko diren ildo konfederalen garapena.

Aurrerantzean Sektoreen plangintzek, ekintza sindikal eta negoziazio kolektiboaz hitz egiten dugunean, erabateko zentralitatea hartu behar dute, ez soilik edukien aldetik baizik hauek gestionatzeko denboragatik ere.

Plangintza hauek (konfederaletik datozenekin batera), sindikatuaren interbentzioaren denborak eta erritmoak finkatuko bait dituzte.

Ekintza Sindikalean eta Negoziazio Kolektiboan inplementatu nahi dugun dinamikan sektoretako plangintzek erabateko zentralitatea hartzea nahi dugu.

Plangintza hauen definizioa inportantea bada ere noiz egiten den ere bere garrantzia du. Sektoreek ez dute planifikazio nazionalaren zain egon behar berea diseinatzeko.

Alderantziz, planifikazio konfederala egin ahal izateko sektoriala egin behar du.

Honek lan metodoetan, erritmoetan zein denboran egokipen batzuk egitera eraman behar gaitu. Garrantzia eman behar diogu ebaluaketari eta honekin batera ekin behar diogu ildoaren egokipenari edo luzapenari.

Hau dena une berean eman behar da, ezin da askotan egiten dugun moduan denboran une desberdinetan kokatu. Gero ildoaren garapena dinamikoa izan behar da eta horretarako behin baino gehiagotan errebisatu eta horren arabera egokitu beharko dugu.

Gogoeta hau aurrera eramateko ardura Sektoretarako Nazio Komiteei dagokie, beraiek finkatuko dute bere Sektoreari dagokion interbentzioa.

3.4.-Eskualdeak gure interbentzioaren oinarria.

Gure eredu sindikalean, gure interbentzioaren garapenean egitura honek jada pisu eta zentralitate handia badu inplementatu nahi dugun dinamikan garrantzi hori areagotu egiten da.

Atal honen hasierako gogoetan aipatu dugu behetik gorako komunikazioari berebiziko garrantzia eman nahi diogula eta hori gauzatu ahal izateko aipatzen ari garen bi egiturek (eskualdea zein sektorea), ezinbesteko papera jokatu behar dute.

Horretarako eskualdean dauden ardura ia gehienek bi norabideko funtzioa dute.

Batetik, interbentzio esparruetan ematen diren egoerak detektatu eta horien trasladoa zuzendaritzako egituretara eta bestetik sindikatuak planteatzen dituen interbentzioen ildoen gauzapena interbentzio esparruetan.

Bi funtzio hauek oso inportanteak dira guk nahi dugun funtzionamendua lortu ahal izateko.

Lehenengoaren bitartez sindikatuaren egiturak (sektoreak zein konfederala), elikatzen dituelako.

Ezinbestez sindikatuaren interbentzioa diseinatzeko garaian gogoeta konfederalekin batera enpresetan eta herrietan ematen diren egoerak bere tokia izan behar du.

Sektoreei zein Nazio Komite konfederalari egin beharreko gogoetarako ikuspuntu eta ekarpen berriak eginez, sindikatuaren ildoak definitu eta erabaki behar dituen egiturei gogoetarako elementu berrien ekarpenak eginez.

Lanketa integral hau eraginkorra izan ahal izateko eskualdearen konposizioari ere erreparatu behar diogu.

Denok ados gaude eskualdea dela gure dinamiken inplementatzeko gune nagusia. Horretarako Eskualdeak sindikatuaren argazki osoa behar du bere kokapena egin ahal izateko.

Argazki hori elikatuko da Nazio Komitean landu ditugun ildo orokorren bitartez. Baina ildo horiek orokorrak izanik ondoren sektoreetan osatu behar dira eta zehaztasun horiek eskualdean eskualdeko sektoretako arduradunen bitartez jasoko dituzte.

Honekin esan nahi duguna da eskualdean sektore edo federazio guztien presentzia (eskualdearen errealitatearen arabera noski), oso inportantea dela, bestela eskualdetan ildo orokor horien inplementazioa edo garapena hankamotz geratuko dira.

Egoera hauek dinamikoak izanik, urteak daramatzagu gai hau azpimarratzen eta datozen hilabete eta urteetan gai hau erronka organizatibo bat da. Egun eskualdeko sare ekonomikoan presentzia duten sektoreen presentzia gure eskualdetan ez da erabat osatu, nahiz eta ahaleginak egin eta aurrerapausu batzuk emanak izan.

Baina gogoeta honi segida emanez, presentzia guretzako ez da bermatzen eskualdeko idazkaritzako bileretara joanez, presentzia bermatzen da eskualdeko dinamiketan integratua egonik. Hau da gure erronketariko bat.

Erronka honek, bizi dugun krisi eta murrizketen abagune honetan, bereziko garrantzia hartzen du arlo publikoan zabaltzen ari den konfrontazioa gure egunerokotasunean integratzeko.

Egun zerbitzu publikoen murrizketak ezin dira soilik langileen ikuspegitik landu. Eraiki nahi dugun jendarte eremuan sektore publikoak paper inportantea jokatzen du eta egun bizi den egoera eta etorriko dena borroka sektorial izatetik borroka konfederala izatera pasa behar da.

Sektore publikoaren defentsan langileak aktibatzeaz gain herritarrak ere aktibatuz eta horretan sindikatu osoak baina bereziki eskualdeak paper inportantea du.

Horregatik sektore publikotik jauzi organizatibo bat eman behar da eta eskualdeko egiturak osatu behar ditu.

Lanketa honetan, lehen aipatu dugun moduan, eskualdeko sektoreko arduradunak eta eskualdeko idazkariak gure organigraman pieza klabeak dira.

Bi ardura hauek irekitzen eta ixten dute sindikatuaren interbentzioa finkatzeko eta garatzeko zati inportante bat.

Ekintza sindikalari dagokionez Eskualdeko Sektoreko Arduraduna bisagra bat da. Bera uneoro ezagutu eta trasladatu behar duelako bere eskualdean berari dagokion sektorearen argazkia bere eskualdeari zein sektoreko nazio komiteari.

Sektoreko Nazio Komiteak bere interbentzio ildoak zeintzuk izango diren eta noiz landu beharko diren zehazteko garaian, bere gogoetan eskualdetatik zein federaziotik jasotzen dituen ekarpenak kontutan hartu beharko ditu.

Definitutako ildoak Federazioarekin konpartitu eta osatu beharko dira.

Federazioak ildo hauen trasladoa emango dio exekutibo eta nazio komite konfederalari eta honek sindikatuaren argazki osoa eginez erabakiko du sindikatuaren interbentzio ildo konfederalak zeintzuk diren eta ze unean aplikatuko diren, lehentasunak markatuz.

Amaitzeko, erabaki horien gauzapenerako eskualdetan amaituko dira, zirkulua ixten.

Dinamika honetan bat egiten dute ponentzia honen hasieran egin dugun gogoeta; alde batetik sindikatuaren erronkak denonak izatea, denok era batean edo bestean parte hartzen dugulako erronka edo ildo horien definizioan eta martxan jartzeko erabakian eta noski bukaeran ematen den interbentzioan.

Beste aldetik, sindikatuaren interbentzioa ordenatzea. Horretarako sindikatuaren dinamika guztiak gune berdinetik igaro behar dute, nazio komite konfederaletik hain zuzen.

Eskualdeko arduradunaren papera neurri batean antzekotasun handia du baina bere ekarpena sektoreei eta federazioei egin ordez exekutiboari eta nazio komite konfederalari zuzenduta dago.

Baina hori ez da eskualdeko arduradunaren funtzio bakarra.

Eskualdeko arduraduna ez da koordinadore soil bat. Nazio Komite konfederalarekiko jokatu behar duen paperaz gain, eskualdearen konpaktaziorako pieza klabea da.

Eskualdeko arduradunak eskualdeko idazkaritzari ikuspegi konfederala aportatu behar dio. Konfederaletik datozen planteamenduak eskualdean ematen den errealitatera egokitu eta inplementatu behar ditu.

Sektoreekin batera dinamika konfederal eta sektorialen planifikazio eta segimendua egin behar du.

Horregatik eskualdeko arduradunaren papera askoz gehiago da konpaktazio paper bat egitea zuzendaritzakoa baino.

Baina eskualdearen dinamizazioa eta funtzionamendu egokia ez dagokio eskualdeko arduradunari soilik. Askotan esan dugu, eskualdea lan talde bat da.

Eskualde ezin da izan ardura desberdinen gehiketa huts bat. Egia da eskualdean dagoen organigraman ardura bakoitzak bere funtzio zehatzak dituela baina eskualdean gertatzen dena era batean edo bestean denon ardura da.

Eskualdearen garrantzia bere ikuspegi integralean datza.

Hemen lehia ez da sindikatuaren organigraman zeinek duen garrantzi edo pisu gehiago, sektoreak edo eskualdeak edo zeinek egiten duen hobeto edo okerrago.

Bakoitzak bere funtzioak eta paper desberdinak ditu eta hauek gure funtzionamendurako osagarriak dira, elkarri elikatuz.

Eskualdearen dinamika Nazio Komite konfederalaren funtzionamenduarekiko duen menpekotasuna gaintu behar du. Honek ez du esan nahi bere funtzionamendua erabat autonomia izango denik, baina bai bere

funtzionamenduan bereiztu behar direla jectorako uneak eta zuzendaritza elikatzeke uneak.

Adibide bat jarri arren, gure funtzionamenduan eskualde gehienak dugun ohituragatik asteazkenetan biltzen dira, Nazio Komitearen dinamikari segida emanez, bertan eskualdearen dinamika aztertu eta garatu egiten dira.

Bitxia da, asteko dinamika aste erdian azterzea, ez al da egokiago astelehen goizetan eskualdeko dinamikari begira bilera tekniko bat egitea eskualdeko ajendaren jarraipenari begira asteazkenetan baino?

Egia da zenbait unetan eskualdea Nazio Komite konfederalaren "zai" egon beharko duela baina hori metodologia egokiago batekin konpondu edo zuzendu daiteke.

Horregatik behin eta berriro errepikatzen dugu eskualdeko egiturak gure eremuan sekulako garrantzia duela. Ildoen gauzapenean determinantea izanik, ildo horien diseinuan ere parte hartu behar duela.

Hau era simple batean azalduta da gure helburutariko bat.

Planteamendu honek ezinbestez bestelako funtzionamendua eskatuko du, eskualdetatik hasita Nazio Komite konfederaleraino.

Funtzionamendu aldaketa hauek ez dute arlo organizatiboan isladarik izango, aldaketak etorri behar dira gure organigraman dauden egitura desberdinetako kideen jarreraren eta protagonismoan.

Lehen esaten genuena gogora ekarri nahi dugu denok izan behar gara, era batean edo bestean, ildoaren definizioaren eta inplementazioaren parte.

3.5.-Sail sindikalak

Bizi dugun krisi ekonomiko honetan sail sindikalek inoiz baino pisu eta zentralitate gehiago hartu dute eta izango dute.

Betidanik esan dugu sail sindikalak direla gure interbentziorako gune nagusietariko bat.

Sindikatuan sail sindikaletaz hitz egiten dugunean askori metalgintzako eredia datorkigu burura hau da herrian, eskualdean, kokatuan dagoen lan zentroaren sail sindikala.

Lan merkatuak garatzen doaz, azken kongresuetan asko hitz egin dugu horretaz, garapena horrek enpresa eta lan zentroa ulertzeko modu berria erakarri ditu eta sail sindikalak eta bere funtzionamendua ezinbestez eredu horietara egokitu behar da.

Lan zentro berdinean lanean dauden enpresa desberdinetako langileekin aurkitzen gara. Azpikontratak, zerbitzuen esternalizazioa, e.a. Hau da, klase sujetoaren desmenbrazioaren edo zatiketaren adibide edo egoera bat.

ANTOLAGETA

Tamalez sistemak inposatzen digun eredu horretan guk geu barneratzen dugu enpresa berean lana egiten duten langileen bereizketa eginez.

Lan zentro berdinean arazo laboral berdinarekin aurkitzen diren langileei irteenbide organizatibo desberdinak ematen dizkiogu.

Egoera hori gainditu beharra dago, zerbitzuaren errebertsioa eskatzen dugu baina bitartean langile horiekin ez dugu ezer eraikitzen bi mundo paraleloetan kokatzen ditugu.

Sail sindikaletako interbentzioan sindikatuaren teoria praxia bilakatzen da. Beraz, sail sindikaletako interbentzioak era batean edo bestean egitean sekulako garrantzia du sindikatuaren diskurtsoa errealitatea bilaka dadin edo ez.

Egun kapitalak eta botere finantzieroak botere politikoaren laguntzarekin inposatzen diguten lan harremanetarako desarautze honetan interbentzio organo desberdinen, baina bereziki sail sindikalen koherentzia eta sindikatuarekiko atxikimendua bere interbentzioa egiteko orduan oinarritzkoa eta beharrezkoa da.

Kapitalak desarautze honekin bilatzen duen lan harremanetarako indibidualizazioaren aurrean izaera kolektiboa mantentzea sekulako garrantzia du. Eta horretan sail sindikalek paper garrantzitsu bat jokatzen dute.

Une hauetan sail sindikalekiko lanketa ideologiko eta sindikatuaren helburuak konpartitzea ezinbesteko ariketa bilakatu zaigu, horrela soilik berma dezakegu sindikatuaren diskurtsoa eta praxiaren arteko erabateko koherentzia.

Sail sindikalaren funtzionamendu eta interbentzio egokiena da bide bakarra sindikatuaren hausnarketa eta planteamenduak langileei era zuzen eta eraginkorrean helarazteko.

Baina sail sindikalak ondo funtzionatzeko sindikatuaren estamentu desberdinen inplikazioa eskatzen du, konfederalak, federazioak, sektoreak eta eskualdeak paper garrantzitsu bezain determinantea jokatzen dute sail sindikalen dinamizazioan.

Esparru hauen funtzioetariko bat da sail sindikaletarako elikadura sortzea. Gero egia da azken unean eskualdean dauden ardurei (sektorialari bereziki), dagokiela hauen dinamizazioa.

Aro honetan garrantzia handia, erabateko zentralitatea hartu behar du gure jendeari elikadura ideologikoa ematea.

Gure jarduera sindikala aurrera eramateko gure ordezkari; gure militanteei kapitalak behin eta berriro burutu nahi dituen aldaketak eta murrizketak justifikatzeko erabiltzen duen diskurtsoari aurre egiteko etengabe tresna eta argudio ideologikoz elikatu behar ditugu.

Azken gogoeta honek gure ordezkari guztientzat, delegatu zein afiliatuak izanik baliagarria baldin bada, sail sindikalekin garrantzi handiago hartzen du.

Aurrerantzean sektoretako, baina bereziki eskualdetako plangintzetan lehentasuna eman behar diogu gune hauen sorrera eta garapenari. Serio hartu behar dute egitura honen garapena.

Lan horretan planifikazio zehatza eta honen segimendua ezinbesteko tresna bat da. Eta lanketa honetan aurreko paragrafoan esan dugun moduan eskualdeak paper ordezkazina du.

Sektoreek zein eskualdeak komunikazio zuzena eta iraunkorra izan behar dute euren esparruetan dauden sail sindikalekin.

Gogoeta hau ezin dugu amaitu sail sindikaleko delegatuek izan behar duten paperari erreparatu gabe..

Ardura hau klabea da sail sindikalaren funtzionamendu egokia eman dadin, bera delako sail sindikalaren eta sektore zein eskualdearen arteko lotura zuzena.

Bera da enpresa horretan sindikatuak duen ordezkartzaren arduraduna eta dinamizatzailea.

Kasu askotan figura honi ez diogu behar besteko arreta jarri. Maiz aurkitzen gara ardura honek jokatzen duen papera gehiago lotua dagoela komitean egin beharreko dinamizari, hauen jarraipena izanik.

Disfuntzio hau gainditu behar dugu. Sail sindikalak eta bere arduraduna komitean ematen den dinamikaren aurrean ezinbestez aztertu eta proposamenak egin behar ditu, hori inork ez du zalantzan jartzen.

Baina sail sindikalaren funtzioak haratago doaz, lehen esan dugun moduan sail sindikala da enpresa, lan zentroa eta sindikatuaren arteko lotura gunea, beraz komiteetan dauden dinamikaz gain, sindikatuak propioki planteatzen dituen eta garatu beharreko ildoak kontutan izan behar ditu, bere inplementazioa lan zentroan edo enpresan eman dadin.

3.6.-Planifikazioaren beharra.

Ponentziaren hausnarketan behin baino gehiagotan planifikazioaren beharra azpimarratu dugu.

Denok ikusten dugu lan planifikatu izatearen beharra, honek bermatzen digulako egoerak identifikatzea, identifikazio horretatik helburuak finkatzen ditugu eta azken hauek gauzatzeko behar ditugun bitartekoak (pertsonalak, teknikoak eta denboralak) identifikatu eta martxan jartzeko laguntzen gaitu.

Honaino denok ados egoten gara, arazoa izaten da gure jardueran gure egunerokotasunean planifikatuak ez dauden elementu edo interbentzioak gurutzatzen direnean.

Gurutzatze hori arazo bat bilakatzen da gure jardueraren, gure egunerokotasunean egiten dugun horretan planifikatu gabeko elementuek edo interbentzioek erabateko protagonismo eta pisua hartzen dutenean.

Egoera horiek ematen direnean gure lehentasunak zeharo aldatzen dira, planifikatutako lana bigarren, hirugarren maila batean gelditzen da eta dinamika asistentzialak zentralitate eta garrantzi osoa hartzen dute.

Egoera honek eskualde batzuetan dagoen itomen sentsazioa areagotzeaz gain militanteen frustrazioa ere sorrarazten du. Egoeretara berandu eta gaizki ailegatzen garen sentsazioa sortuz.

Gurutzatze horiek gurean beti emango dira, hori ezin dugu ekidin eta gurutzatze horiek arinago edo larriago izanik dugun aukera bakarra da gure jardueran nola integratzen ditugun, ze espazio eta garrantzia eskaini behar diegun gure helburu estrategikoen inplementaziorako ahalik eta eragin gutxien izan dezaten.

Ezin bestez sindikatuan ikasi behar dugu egoera horiekin elkarbizitzen. Baina gure lehentasuna lan planifikatuari eman nahi badiogu gune edo ardura berean planifikatu gabeko egoeren eragina murriztera joan behar dugu.

Duela lau urte zenbait gunetan ematen zen bikoizketa gairitu dugu. Hobetu findu dugu egitura sektoriala eta lurraldeko egituren papera eta horri esker egoera hori gairitu dugu

Dena den oraindik asko hobetu behar dugu bileren eta gunen dinamizazioan, azken hilabetetan bitarteko berriekin (barne boletinak, afiliazioarekiko intranetetik dugun komunikazio, e.a.), egiten ari garen lanketa bide egokian kokatzen dugu.

Militantziak bere arduraren garapenerako behar duen informazioa eta ekarpenak zaindu eta era zuzen batean jasotzea nahi dugu. Honekin lagundu nahi dugu gune bakoitzaren dinamizazioan ildoak alde aurretik ezagunak izanik gunetan hauen inplementazioari begira gehiago kokatuko dira eraginkortasuna eta denbora irabaziz.

Ariketa honetan sindikatuaren organigraman gune bakoitzak duen papera eta protagonismoa argi izatea ere ezinbestekoa da.

Gure kultura militantean betidanik jendearen parte hartzea elikatu dugu. Baina elikatze hori askotan nahasten dugu. Denbora asko galtzen dugu jada definituak edo hartuak ditugun lerroen inguruko gogoetetan.

Eztabaida horiek kasu batzuetan antzua izanik. Egoera horiek ekidin nahi ditugu.

Hemen terreno arriskutsuan sar gaitezke, batzuk pentsa dezakete planteamendu honen atzetik izkutuan dagoena rodillo analitikoa pasatzeko asmoa dela. Arrisku hori beti eragin daiteke ezin da izkutatu.

Baina gogoeta hau beste ikuspuntutik egiten da, askotan eztabaida zirkularretan sartzen gara. Eztabaida berriak erabiltzen dira erabaki zaharrak zalantzan jartzeko (sindikatuaren ildo osoa kuestionatzen).

Beste batzuetan eztabaida amaigabeak egiten ditugu inolako ondorioetara ailegatu gabe. Beste batzuetan erabakien transmisio okerrak edo azalekoak bost minutuko lanketa bat eskatzen duena orduetako eztabaida bilakatzen du.

Honetaz hitz egin nahi dugu, egoera horiek ahal den neurrian ekidin nahi ditugu, barne egoera horiek ere gure jarduerarako ez direlako lagungarriak.

Horregatik oso argi izan behar dugu uneoro eztabaida batzuetan non, nola eta zeinek hartu behar du parte.

Eztabaida bakoitzean identifikatu behar dugu erabakia ze egiturak hartzen duen eta

zeintzuk parte hartu behar duten eztabaida horretan.

Erabaki hori ze gunen bidez militantziarekin konpartituko dugun eta zeinek gauzatu behar duen.

3.7.-Militantziaren protagonismoa ziklo berrian.

Guk bultzatzen dugun eredu organizatiboa aurrera eramateko militantziaren konponenteak zentralitate eta erabateko garrantzia du.

Egun sindikatua dena izateko, urteetan zehar militante askoren ekarpenari eta esfortzuari esker izan da eta izaten ari da

Hori da gure altxorra, zaindu eta iraunkorki elikatu eta ureztatu beharreko baratza.

Batzuek egungo jendartean militantziaz hitz egitean aurreko mendeko nostalgikoen gogoeta hutsalak direla esaten duten honetan. Sindikatuan azken lau urte hauetan emandako belaunaldi aldaketak erakutsi digu hori ez dela horrela.

Militantziaren kontzeptuak eta ulertzeko erak aldatu badira ere militantzia egon badago

Sindikatuak urte hauetan egokitzen ari da militantzia ulertzeko eta bizitzezko eredu berrietara, eta hori aurrerantzean prozesu dinamiko bat izango da.

Irekitzen zaigun aroak ez digu militantziari erlajatzeko aukerarik emango. kontrakoa baizik.

Klase gatazka zein gatazka nazionala beste fase batean sartzen diren honetan konfrotazioak ezinbesteko estadioa izango da gure helburuak gauza daitezen eta horretan militantzia eta militanteek jokatu beharko dugun papera oso inportantea izango da.

Botere ekonomiko-finantzieroak botere politikoaren laguntzarekin batera bultzatzen duten jendartearen eredu indibidualizatu honetan bestelako proiektu defendatzen ditugun eragileen ezabatze eta deslejitimizazioa iraunkorra dakar.

"Elite" hauek manejatzen dituzten bitartekoekin (prentsa, botere ekonomiko eta instituzionala, e.a.), lehiatzea oso zaila dugu.

Inposatu nahi diguten diskurtso eta errealitate monolitiko eta planoen aurrean, eraikitzen duten alternatibarik gabeko eszenatoki horien aurrean bestelako eredu sozial eta ekonomikoa eraikitzeke aukerak egon badaudela aldarrikatzen dugu.

Gatazka amaigabe honetan gure tresnak militantzia eta egunerokotasunean militantziaren bitartez gauden esparruetan, inziditzen eta alternatiba errealak eraikitzen erakusten duguna dira.

Horretan gaude eta horretan jarraituko dugu.

Baina militantzia ez da berez ematen den estadio bat, militantzia bilatu, sortu, eraiki egin behar da.

Eta horretan sindikatuak inbertsioak egin beharko ditu.

3.8.-Interbentzioaren integritasuna.

Integritasunaz aritzen garenean kontzeptuak guretzeko esan nahi bikoitza du.

Gure sindikatuaren interbentzioa integrala dela esaten dugunean gure jardura ez dela mugatzen soilik lan mundutik langileengan sortzen diren egoeren kudeaketan, baizik eta jendartean oro har dauden errealitateei erantzutea bilatzen dugulako.

Baina integritasuna beste era batean ere ulertzen dugu, egiten duguna egitura guztietatik ulertua eta konpartitua izatea.

Lehengoa ezinbestekoa bada LAB bezalako sindikatu soziopolitiko baten proiektuaren garapenerako, bigarrena ere oso inportantea da gure interbentzioa konpaktatu izan dadin.

Interbentzio esparru desberdinak izatea (lurraldekoa eta sektoriala), konpaktazio hori emateko garaian disfuntzioak sortzen digu.

Planteatzen dugun gogoeta egoera horiek gainditzeko asmoa dute helburu.

3.9.-Idazkaritzen garrantzia.

4. Gure organigramaren egokipenak.

4.1. Biltzar Nagusia

1992. urtetik hona LAB sindikatuaren dinamikek lau urtetako ziklo baten barruan kokatu izan ditugu. Ziklo horien abiapuntua eta amaiera gure Biltzar Nagusia izanik.

95. urtean Hauteskunde Sindikaletako prozesu berrituarekin batera (Aldi trinkoa eta konputo iraunkorraren garapena), jadanik zegoen dinamika bat beste era batean arautu egiten da eta gure interbentzioaren garapenean sekulako garrantzia eta zentralitatea hartzen duen dinamika berritu bati hasiera ematen zaio.

Geroztik gustatu ala ez, hauteskudetako eredu berritu honek dakarren deszentralizazioak gero eta pisu gehiago hartzen du sindikatuaren dinamiketan, gure barruko dinamikak eta interbentzioak denboran mugatuz eta baldintzatuz.

Egoera honek sindikatuaren zikloa murriztea ekarri du, sindikatuak finkatuak dituen erronkak aurrera eraman ahal izateko egun dugun lau urteko ziklo hau "motza" geldituz. Lau urteko ziklo horretan Biltzar Nagusian hartutako erabakien garapena erabat baldintzatuz.

Egun ematen den egoera hori gainditu nahian, ezagutzen dugun Biltzar Nagusien arteko lau urteko ziklo honetatik bost urteko ziklo batera pasatzea proposatzen dizuegu.

4.2.-Nazio Biltzarra (130)

Organo honek gure organigraman duen garrantziaz askotan hitz egi dugu. Proposatzen dugun aldaketa ez du eragiten bere funtzioetan baizik bere osaketan sindikatuaren errealitateari egokituz.

Azken Biltzar Nagusian 150 kidez osatutako organoa zela baina organo beraren funtzionamenduak erakutsi digu kopuru hori ez dela errealia.

Beraz lau urteko dinamikak ematen digun balantzea kontutan hartuz bere osaketa 130 kideena dela proposatzera eramaten gaitu.

Nazio Komiteko kideak.(37)
Federazio Komiteak(3+5+3)
Eskualdeak 40
Sektoreak 40
Irizpide nazionalak 2

4.4.-Komite Exekutiboa (15 lagun)

Balorazioan kokatu dugun gogoetari segidan emanez eta urte hauetan izandako gabeziak gainditzeko asmoz sindikatuaren beste fasetan exekutiboan kokatuak zeuden bi ardurak berreskuratzea planteatzen dugu.

Ekintza Sindikaleko eta Negoziazio Kolektiboko Ardura, bere funtzio nagusiak izango dira diseinatzea, izaera integrala emanez, sindikatuaren interbentzioak, bai ekintza sindikalean zein negoziazio kolektiboan.

Sindikatuaren ekintza sindikalaren garapenean dauden gune desberdinen elikaduraz arduratuz.

Horretarako ardura honek bi tresna nagusiak izango ditu, Federazioetako Arduradunen laguntza eta Ekintza Sindikaleko Batzordea.

Zehar-lerroko Ardura, ditugun plan estrategikoak inplementatzea eta segida ematea da ardura honen helburua.

Horretarako ardura honekin batera Emakumeen Idazkaritza eta Euskararen Idazkaritza kokatzen ditugu.

Politika Ekonomiko eta Sozialen garapenean, arduren kokapen bat egiten dugu, Idazkaritza Tekniko Ekonomikoa Politika Sozialen staf bat bilakatuz, bere kokapena Batzorde Sozioekonomikoan eta Nazio Komitean utziz.

Bokalien eztabaida hor dago, bi aukera ditugu edo dagoen moduan utzi ezeraipatu gabe edo eztabaidan sartu.

4.5.-Eskualdeak

Lurralde egituraren organigramari dagokionez planteatzen dugun aldaketa bakarra Hernani-Astigarraga zonaldearen kokapenari dagokio.

Une honetan zonalde hau Donostialdea eskualdearen barruan kokatua dago eta egiten dugun planteamenduan Tolosa-Goierrin kokatuko genuke.

Aldaketa honen abiapuntua egungo eskualdearen izaerari erantzuten dio. Donostia eta Hernanialdearen izaera eta lan munduaren azterketaren ondorioz da.

Donostia eskualdean zerbitzu pribatuek sekulako pisua izanik hernanialdea berriz, industria da nagusi, eta gainera Donostian dagoen dinamika (hiriburuan ematen diren errealitateei zuzendua), baldintzatzen du erabat zonalde honen garapena.

Azpisektorializazioa herrialdeka

4.6.-Prestakuntza Idazkaritza

4.7.-Lan Osasun Idazkaritza

Duela lau urteko apustuari segida emanez gure ekintza sindikalean idazkaritza honen integrazioan jauziak ematen jarraitu nahi dugu.

Lan Osasuna ezin da izan partxe bat sektoretan dauden gabeziak estaltzeko, honek ez du esan nahi dauden eskakizunei eta beharrei ez diegula erantzungo, baina bai gure helburua zein da argi uzten du.

Lan Osasuna gure ekintza sindikaleko atal inportante bat da eta beraz Lan Osasunaren dinamikak gure eguneroko interbentzioetan integratuak egon behar dira. Honek ezinbestez Lan Osasuneko interbentzioa sektoretan eta federazioetan dauden organo eta kideengandik egitera eramaten gaitu.

Lan Osasunean ematen diren errealitateak oso konplexuak dira eta kasu askotan lanketak egin ahal izateko ezagutza teknikoen beharra dago.

Aurreko bi gogoetek Lan Osasuneko interbentzioa bi eratan kokatzera eramaten gaitu, bat ofentsiboa interbentzioari begira (sektore zein federazio) eta bestea asistentziala-teknikoa egunerokotasunean ematen diren kasuistika askoren aholkularitza, kontsultei zuzenduta.

Hori dela eta bi esparru bereizten eta uztartzen jarraitzen dugu, lehenengoari pisua eta zentralitatea emanez. Denboran gure helburua sektoretatik lan osasuneko interbentzio integral bat egitea izan behar da.

5. Estatutoen onarpena.

Laugarren atalean landu eta onartu ditugun egokipen organizatiboak gure estatutoetan isla izango dute.

BORROKA KUTXA, Estatutuetan